



TOLOSALDEKO BERRITZAPEN SAREA MARTXAN

Tolosaldea Garatzen izango da koordinatzailea; helburu hau lortzeko Lehiberri foroa sortuko dute >2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2008-03-01

VIURTEA 1.375 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Frankismoaren eta Gerra Zibilaren ondorioak aztertu ditu Aranzadik

TOLOSA 2006an hasi ziren proiektuan dokumentazio lana egin dute; aurrerantzean lekukotzak jasoko dituzte

INFORMAZIOA Udalaren laguntzarekin Aranburun oroimenaren bulegoa jarriko dute apirilaren 3ra arte 3



Hutsunea betez elkarteak kideak, Josune Arretxe eta Mentxu Julian, besteak beste, atzoko aurkezpenean. I. GARCIA

HUTSUNEA BETEZ EMAKUMEEN GUNE

VILLABONA Emakume elkarte berria aurkeztu dute; Udalarekin batera martxoaren 8rako egitaraua aurkeztu dute 4

Miel Mari Elozegi ariko da Bertsolari Txapelketan, gaur

LEITZA Nafarroako lehiaketako hirugarren finalerdia izango da, 18.00etan, Berako Kultur Etxean; saio honekin finalistak erabakiko dira 7

Gurasoek ikasleen aurrean irakurriko dute «zaletasuna bultzatzeko»

IKAZTEGIETA 'Gurasoak irakurle' ekimenaren harira 10-15 minutuko ipuinak irakurriko dituzte 5

guk independentzia

MARTXOAK 2
INDEPENDENTZIAREN EGUNA
AMASA-VILLABONAN

11:00etan independentziaren aldarria
Amasa-Villabonako udal hautetsiek
Ondoren, kalejira herriko kaleetan zehar,
Independentziari Bai lemapean
13:00etan ekitaldi politikoa, Berdura plazan

Tolosaldeko berriztapen sare berria aurkeztu dute

Ekonomia » Tolosaldea Garatzen izango da koordinatzailea; helburu hau lortzeko Lehiberri foroa sortuko da.

ESTI EZEIZA

Tolosaldeko Garatzen eskualdeko berrikuntza agente bezala aurkeztu zuten herenegun. Honek denborazko darabala eskualdeko hazkunde ekonomikoa sustatzen. Orain, Euskadi Innovarekin batera, berrikuntzaren sustapenean oinarritu da, beraien ustetan «hori baita eskualde lehiakor bat lortzeko gako». Euskadi+Innova Euskal Autonomia Erkidegoan berrikuntza bultzatzen diharduten pertsona eta erakundearen estrategia partekatua da. 2007ko maiatzaren 14an sortu zen Innova sarea, eta azaroan, Gipuzkoako lurralde nodoa. Herenegun berriz, Tolosako sarea aurkeztu zuten, Tolosaldeko garapen agentziaren eskutik. Euskadi-Innova ekimenaren helburua da EAEa berrikuntza alorrean Europako errefe-

rente izatea, honekin, gizarte ongi-zatea erdietsiz.

Jose Ignacio Zudaire, Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza eta Energiako sailburuordeak aurkezpenean agertu bezala, berriztapenak denengana, herritar guztiengana iritsi behar du, eta horretarako, beharrezkoa da Innovanet sarea. Honen baitan, Tolosaldea Garatzen nodoa koordinatzailea izango da.

Tolosaldeko Garatzenen lana

Eskualdeko garapen agentziak proiektu berritzaileak garatzeko tresna eta metodologiei buruzko informazioa eskaintzen die enpresei. Horretarako, berrikuntza foroak antolatuko ditu. Honez gain, berrikuntza bultzatzeko dauden programa eta laguntzei buruzko informazioa emango die, baita jardunbide egokiei buruzko informazioa ere. Azkenik, eskualdearen enpresa-ehuna eta beharrak ezaugarritzen dituzten aholkulari profesionalen aholkularitza pertsonalizatua eskainiko du Tolosaldea Garatzenek. Gainera, enpresengana hurbiltzen saiatuko da eta ahalik



Eszer-eskuin: Juanjo Duque, Jose Ramon Guridi, Jokin Bildarratz, Jose Ignacio Zudaire eta Jon Ander Torre. E. EZEIZA

eta ekintza gehien eskainiko ditu helburu hori lortzeko.

Lehiberri foroa

Idiaker jauregian egindako aurkezpenean izan zen Jokin Bildarratz, Tolosaldea Garatzeneko Lehendakaria. Berak azaldu zuen, 2007ko hauteskundeetan, Tolosako alderdi politiko ezberdinek bat egin zutela esanaz, «industria eta ekonomia bultzatzea izan behar zuela hurrengo legegaldiko ardatza». Hala, iaz, Deloitekin egin zuten Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntza foroa. Analisi horretan agertu ziren eskualdeak zituen ahulezia eta indarrak. Lehen-

dabizikoen artean aipatu ziren, zoru industrialaren falta, lan kostuak eta prestaketarako zentru gutxiegi izatea. Indarguneei dagozkionez, Tolosaldea, komunikazio aldetik ongi kokatuta egotea, eta manufaktura errentabilitate %47 handiagoa izatea. Honenbestez, aurrera begira gauzatu beharreko hainbat eronka mahairatu zituen Tolosako alkateak. Horien artean bi nabarmendu zituen: berriztatze eta teknologia zentru bat sortzea eta agente berriztatzailea eratzea.

Lehiberri izenez bataiatutako foroaren helburua da, Tolosaldea Euskal Autonomia Erkidegoan berriztapenean ardatz diren es-

kualdeen pare jartzea. Foro hau ere ezberdintzat irekia izango da, eta bertan parte hartuko dute besteak beste, sektore ezberdinetako enpresetako ordezkariak, Tolosaldea Garatzenekoek, formakuntza zentruetakoek eta Udaltako buruek.

Zehaztutako helburua lortzeko, hau da, berriztapenean erreferente izateko, bide horretan egin beharreko hainbat pauso nabarmendu dituzte. Alde batetik, 2009an gestio plana gauzatu nahi dute. Bestetik, urte beraren amaierarako, berrikuntzarako zentru berria sortzea aurreikusten dute sustatzaileek.

Paisaiari buruzko argazki talilerra abian

ERREDAKZIOA

Paisaiari buruzko argazki talilerra izango da martxoaren 31tik ekainaren 30a bitartean.

Astelehen eta asteazkenetan izango dira 18:30etik 21:30era. Eskolak Antonio Maria Labaien Kultur etxean izango dira. Ikastaroa argazkigintza gustuko duten 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Jorritako den gaia paisaia izango da, eta lau zati izango ditu: paisaia ur-

bonaia, industrial, gauekoa eta naturala. Irakaslea Iñigo Royo izango da. Izen-ematea martxoaren 14a baino lehen egin daiteke Kultur Etxean bertan edo 943 67 03 83 telefonon zenbakira deituta.

Saioetarako erabiliko den edukia Photoshop, laborategia, irteerak eta abar izango dira. Bestetik, gehienez hamabi lagunek parte hartu ahal izango dute antolatutako saioetan.

Gutunak

Mikel Lopetegui gogoan

Independentziaren aldeko militanteen aurkako sarekadak direla eta, azken zortzi hilabeteetan, Mardilek eta Parisek 200 atxilotu gora egin dituzte. Ia bi urte iraun zuten negoziazio prozesuaren bukaera egiaztatu eta gero, Alfredo Perez Rubalcaba Barne Ministro espainiarrak esan bezala, martxo-ko hauteskundeak baino lehen 200 atxiloteta baino gehiago izan dira.

Azken espetxeratzeak direla eta, inoiz izan dugun preso politiko kopuru handiena dugu gaur egun, 730 hain zuzen ere.

Guzti honi gehitu behar zaio bizi osorako zigorraren doktrinaren aplikazioa. Europa osoan ez dago presorik horrenbeste denbora daramanik espetxean. Espainian daude gehien daramatenak. Kasu lazgarriena Joxe Mari Sagardui Gatz preso zornotzarean aurkitzen dugu, dagoeneko 27 urte erdi daramatza espetxean. Lazgarriena bai, baina ez da kasu bakarra.

Hilabete hauetan jarraitzen dute ere barrote artean sendaezinezko gaixotasunak dituzten presoak, Anjel Figuerola, Gotzone Lopez de Luzuriaga edota Juan Jose Rego besteak beste, hamabiraino iritsi arte, eta baita ere dagoeneko zigorraren hiru laurdenak beteta kalean behar zuten 169 preso. Balaizte triste eta negargarria.

Egindako guztiarekin nahiko ez eta erreproso ziklo berri bat presatatu eta jorritzen ari dira espainiar eta frantziar Gobernuak, EAJ-PNVren laguntza osoarekin. Horren adierazle dira azken hilabete-

etan izandako tortura kasuak, honen batera ezker abertzaleko militanten atxilotzeak eta espetxeratzeak. Eta ez hori bakarrik, baita ere erabateko jazarpena azken greba egunean ikusi den moduan. Espetxeetan preso politikoek ezartzen zaien egoera: erabateko isolamendua, dispersioa eta bere ondorio larriak pairatuz, milaka kilometrotara bizitzera beharturik dauden iheslari politikok eta hauen aurkako jazarpena, eta abar.

Orain dela 21 urte, sakabanaketa jarri zuten martxan, beste neurri politikoaren artean, eta honen ondorioz, aurrenekoari biktima Mikel Lopetegui izan genuen. Igande honetan 20 urte betetzen dira espetxe politikak gure ondokiko eraman zizunetik. Hau dela eta igandean honetan eta irteroko ohitura den moduan mendi martxa antolatuko dugu Urkizura. Hau goizeko 10:00etan aterako da Triangulotik, eta gero eguerdiko 12:00etan lore eskaintza egingo zaio bere omenez jarritako monolitoaren aurrean, hau ere Urkizum bertan.

Mikel Zabala (Ammistiaren aldeko mugimenduaren izenean). Tolosa

DONOSTIALDEKO ENPRESA BATEK KOMERTZIALA BEHAR DU (Erref. Bt 08_1)

Izaera dinamiko eta harremanetarako gaitasuna duen pertsona baten bila gabilta. Esperientzia izatea ez da beharrezkoa, baina kontuan hartuko da antzeko lanetan eskarmentua izatea. Ezinbestekoa da euskaraz jakitea eta gidabaimena eta autoa izatea.

Aukeraturako pertsonaren egitekoa hainbat produktu saltzea izango da, eta etorkizun interesgarria duen proiektu berri batean parte hartzeko aukera eskainiko zaio.

Lan baldintzei dagokionez, lan kontratua eskaintzen da, gizarte segurantzarekin, eta, soldata finko interesgarriaz gain, salmenten araberako komisioak ere izango ditu.

Curriculum Vitae zehatza bidali martxoaren 10erako gizabaliabideak@jarduna.net HELBIDE ELEKTRONIKORRA. Ez ahaztu erreferentzia zehatzea.

ARAMBURU

Salgai (Tolosa), Etxebizitza, Bidebieta auzoan, guztiz eraberritua.
Salgai (Tolosa), Etxebizitza, garajearekin, Trinkele auzoan.
Salgai (Tolosa), Etxebizitza, Kale Nagusian, igogailuarekin.
Salgai (Tolosa), Etxebizitza, Kale Nagusian, eraberritako.
Salgai (Tolosa), Garajeak, San Frantzisko eta Leidor azpian.
Salgai edo Alokatzeko (Lasarte), Lokale, tximiniarekin, erdiguenean.
Salgai edo Alokatzeko (Amezket), Etxebizitza.
Alokatzeko (Tolosa), San Frantzisko, lurre eta Araba etorbidean.
Alokatzeko (Ibarra), Pabiloi industrial, Leaburu bidean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

Gerra Zibila eta Frankismoaren ondorioak ikertu ditu Aranzadik

Gizartea » Herritarrei arreta emateko bulegoa egongo da zabalik martxoaren 3tik apirilaren 11ra arte Aranburun.

INIGO TERRADILLOS

Duela 6 urte inguru hasi ziren Aranzadi Zientzia elkarteak kideak gogoeta egiten Tolosan zer gertatu ote zen Gerra Zibilaren ondorengo urteetan. «Izan ere, ez zegoen ezer ere idatzita horren inguruan, eta gainera, Tolosaren kasua berezia izan liteke, Inauteriak mantendu ziren herri bakarrakoa baitzen. Beraz, benetan sufrimendua nolako izan zen jakin nahi genuen», azaldu zuen atzo eguniko aurkezpenean Juan txo Agirrek. Hala, gaia aztertu ostean, Tolosako udaletxera joan ziren zuten asmoa azaltzera, eta Udalak hau bultzatu ostean,

2006tik Gerra Zibilak eta lehen frankismoak (1936-45) Tolosan izandako ondorioak ikertzen ari da Aranzadi Zientzi Elkarteak diziplina anitzeko talde bat, Juantxo Agirre Mauleon eta Mikel Errazkinen zuzendaritzapean historiari, antropologo fisiko eta antropologo soziokulturalen osatua.

Izugarrikeriak argitzea

«Beldur pixka bat sentitzen genuen gertuko gauzak direlako eta sentimenduak oraindik ere azalean egon zitezkeelako», aitortzen dute Aranzadiko kideak. Ikerketaren xedea garai horretan Tolosan gertatu ziren eta ahaztuta egon diren izugarrikeriak argitzea da; «izan ere, biktimen memoria isilarazi egin da, baita demokraziaren ezarpenaren ostean ere». Horrenbestez ekimenaren bultzatzaileak azaldu bezala, «erantzuna eman nahi zaio biktimek dinamizatu duten eta atzera begiratzea, iragana



Juantxo Agirre, Jokin Bildarratz eta Mikel Errazkin. I. TERRADILLOS

argitzea eta luzaroz ahaztuta izan direnei justizia egitea eskatzen duen mugimenduari». Azken finean, «oraindik ere irekita dagoen zauri morala duintasunez» itxi nahi dute eta gerrako biktimen senitarteko guztiei testuinguru historiko hori zientifikoki dokumentatzeko bitartekoak eskaini nahi dizkiete.

Dokumentazio lana

Atzo eguniko aurkezpenean orain arte egin duten lana dokumentazio lana izan dela azaldu zuten. Euskal Herriko nahiz Espainiako hainbat artxibategietan egon dira ikertzen, eta hainbat eta hainbat datu biltzea lortu dute. Hala, lan hau ia amaitutzat eman ostean, hemendik aurrera gerra bizi izan zu-

tenen edo hauen senitartekoen lekukotzak jasotzea izango dela zeregina adierazi dute Aranzadiko kideak.

Bulegoa herritarrei zabalik

Jaso duten informazio guztia herritarren eskura jartzea da ekimen honen helburuetako bat, bereziki errepresioa jasan zuten biktimen edo hauen familiakoen eskura. Informazio hori guztia jaso ahal izateko herritarrei arreta emateko bulegoa jarriko dute Aranburu jauregian martxoaren 3tik apirilaren 11ra, ondorengo orduetarako: astelehenean 16:00etatik 20:00etara, astearteetan 09:30etik 13:00etara eta ostegunetan 09:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Laburrak

Pasai San Pedron lehiatuko dira TAFEkoak, gaur

KIROLA » Gaur, 16:00etan hasita Tolosaldeko Arraun Klubeko arraunlariek Gipuzkoako Batel Ligaxkakako jardunaldi berri bat izango dute. Hain zuzen ere, Pasai San Pedron lehiatuko dira.

Ura moztuko dute etzi, Araba Etorbidean

AZPIEGITURAK » Horniketara sarean hobekuntzak egin behar dituztela eta, ura moztuko dute Araba Etorbideko 1,2,3,4 eta 5 zenbakietan. Etzi, astelehena, izango da ura moztuko duten eguna, 15:00etatik 18:00etara. Gipuzkoako Urak-etik adierazi dutenez, «gerta daiteke pentsatu baino lehenago amaitzea lanekin, eta kasu horretan abisurik gabe emango dugu ura». Lanak luzatuz gero 90230 2222 telefono zenbakian izango da uraren moztetaren inguruko informazioa jasotzeko aukera.

Eskolarteko Xake Txapelketaren finala, bihar

KIROLA » Tolosaldeko Eskolarteko Xake Txapelketaren azken saioa jokatu dute bihar. 11:00etatik aurrera izango da Tolosako Kultur Etxean. Jokalariek geratzen diren hiru partidak jokatu dituzte, eta ondoren, 12:30ak aldera, sari banaketa egingo dute, domina, oroi-garri eta Gipuzkoako Txapelketarako txartel banaketarekin.

Asturiasera bidaiaria Harizpe elkartearen eskutik

AISIA » Harizpe jbilatu elkarteak Asturiasera bidaiaria antolatu du apirilaren 23tik 28ra (pentsio osoa 250 euro, 245 ez bazkideek). Izen-ematea elkartearen bertan egin ahal da.

Atzoko eta gaurko eskiatzaileen afaria

GIZARTEA » Eskiak Euskal Herrian 100 urte bete dituela eta, besteak beste, atzoko eta gaurko eskiatzaileen afaria egingo dute martxoaren 2an Lekunberriko Aiestaran hotelean. Izen-ematea, 670 029898 (Ane) eta 943 288652 (Alberto) telefono zenbakietan.

Odol-ematea institutuan

GIZARTEA » Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuan, odol-ematea egin zuten pasa den astean, Gipuzkoako odol emaien elkartearen deia erantzunez. Bertatik azaldu dutenez, «ikasleek, irakasleek eta beste langile guztiek eman zuten, borondatez, denera 50 pertsona izanik, eta, gainera, gehienek lehen aldiz eman zuten odola». Ekintzaren helburua, «gazteengana hurbildu, ematea erraztu eta odol-ematearen garrantzia azaldu eta ekintza ezagutzea izan zen, eta baita emaille gazteen kopurua handitzea». HITZA



Hilberria

MARTXELINA AGIRRE APAOLAZA

Andrea
(Joxe Mari Sagastumeren alarguna)
Herenegun hil zen.
-Goian bego-

Alba: Martxeli; suhia: Juan; bilobak: Ainhoa eta Eneko; senideak: Joxepa (?), Joxe (?) eta Pako (?); koinatu-koinatak, ilobak, lehengusak eta gainerako ahaideak.
Hileta elizkizuna: GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Alegiako SAN JUAN BATAIATZAILEAREN elizan.
Helbidea: San Juan kalea, 29
Oharra: Lur ematea gaur goizeko 11etan Alegiako hilerrian.



ALEGIA
2008ko martxoaren 1a

PATXI IZAGIRRE SALABERRIA

Basurde koadrilako zure lagunak.



ZALDIBIA-ORDIZIA
2008ko martxoaren 1a



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Laburrak

Garbiketa ordezkapen zerrenda osatuko dute

ANOETA • Udalak eraikinetarako garbiketa ordezkapen zerrenda osatzeko asmoa du. Izena emateko epea hilaren 4an amaitzen da eta eskaria 09:00etatik 13:00etara aurkeztu behar da udaletxean. Interesatuak ondorengo baldintzak bete beharko dituzte: euskarazko lehenengo hizkuntza perfila edo maila porekoa; langabezia egotea eta Anoetan erroldatuta egotea.

Emakumearen Egunaren inguruko ekitaldiak

ZIZURKIL • Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Zizurkil. Erakusketa, osasunari buruzko hitzaldia, *Marimendi* ikus-entzunezkoa eta Iparraldera irteera. Hasteko, etzi, eskulan ikastaroetan parte hartzen duten emakumeek egindako eskulanean erakusketa inaurratuko dute, 19:00etan, Atxulondo kultur etxean. Asteartean, 18:00etan, Atxulkondo kultur etxean ere, *Bizkarreko mina*. Arrazoiak eta saihesteko moduak hitzaldia emango du Michel Marmier mediku kiropraktikoak.

Ekitaldiak emakumearen egunaren inguruan

ADUNA • Adunako elkartetako ordezkariak eta hainbat herritarrek egitarau bateratua antolatu dute martxoaren 8rako, Emakumeen Nazioarteko Egunari lotuta. 19:30ean hasiko dira ekitaldiak, Bilgune Feministako kide batzuen hitzaldi parte-hartzaileekin, kultur aretoan. 20:30ean, berdintasunaren aldeko elkarretaratzea herriko plazan. 21:00etan, afaria, Uztartza tabernan. Afarirako izena emateko, 943 69 39 30 telefono zenbakira deitu behar da. Horretarako epea etzi, astelehena, bukatuko da. Afariaren prezioa 29 eurokoa izango da.

Hutsunea betez emakumeen elkartearen aurkezpena egin dute

Villabona • Emakumearen Nazioarteko Eguneko ekitaldien berri eman dute Udalak eta sortu berri den emakumeen elkarteak.

IMANOL GARCIA

Emakumearen Nazioarteko Egunerako antolatu diren ekitaldien berri eman zuten atzo udaletxean. Bertan izan ziren Josune Arretxe Ongizate eta Emakumearen batzordeburua, Mentxu Julian gizarzte langilea eta Hutsunea betez emakumeen elkartearen hainbat ordezkari. Hain zuzen, sortu berri den elkarte horren aurkezpena egiteko ere baliatu zuten prentsaurrekoa.

Arretxek garrantzia eman zion Martxoaren 8ko eguna antolatzeari. «Ez zaigu gustatzen gehiegi egun zehatz batzuk azpimarratzea, horrek zerbait esan nahi duelako, eta kasu honetan badakigu zergatik antolatzen den egun hau. Berdintasunik ez dagoen bitartean, antolatzeko jarraituko dugu eta bere garrantzia badu». Antolaketak hasi zirenean, «gure sorpresa izan zen talde bat sortu berria zela herrian». Horrela, elkarlanean antolatu du Udalak eta Hutsunea betez taldeak aurtengo ekitaldiak.

Gune bat eraikitzen

Udalak antolatu eta Pepa Bojok emandako tailer baten ondorioz sortu da Hutsunea betez. Bertako kideak azaldu zuten, «ikastaro horretan talde heterogeneoa osatzen joan zen eta emakumearen gaueguneko egoeraz jabetzen joan ginen». Hain zuzen, «kontzientzi esnatze horrek motibatuta, eta bata besteagandik ikasteko, laguntza emateko eta hazteko gune bat topatu ondoren», talde bilaketzea erabaki zuten.



Hutsunea betez elkarteak, Josune Arretxe eta Mentxu Julian, atzoko prentsaurrekoan. I. GARCIA

Gizartean emakumearen gabezien inguruan hausnarketa egin eta aldarrikatu nahi dute

Helburu nagusiak dira, alde batetik, «gaur egungo gizartean emakumearen gabezien inguruan hausnarketa egin eta hori aldarrikatzea, kontuan izanik, erasoak kanpoko albiste izatea utzi dutela eta orain herrian bertan gertatzen direla». Bestetik, «errespetuan oinarritutako gune bat mantentzea, eraikitzen ikasten ari garena, Udalaren, Pepa Bojoren eta beste emakume batzuen laguntzarekin».

Emakumearen Nazioarteko Eguneko ekitaldiak baliatu nahi dituzte elkarte herritarren artean aurkezteko eta egun horretan egingo den elkarretaratzea gonbitea luzatzen dute. *Stop emakumeen hilketei, beldurrari eta erasoari; Bai berdintasunari, eskubideei, soldata duinei, askatasunari* izango da elkarretaratzearen leloa.

Horrez gain, lankidetzara eskatzen dute proiektu hori aurrera eramateko. «Guretzat proiektua oso positiboa izaten ari da eta beste askorentzat ere hala izan daitekeela pentatzen dugu», zehaztu dute Hutsunea betez taldea osatzen dutenek.

» MARTXOAK 8KO EGITARUA

■ **12:00.** Elkarretaratzea, Errebote plazan. *Stop emakumeen hilketei, beldurrari eta erasoari; Bai berdintasunari, eskubideei, soldata duinei, askatasunari* lelopean.

■ **Ondoren.** Trikitiak alaituta trikopoteoa kaleetan zehar.

■ **14:00.** Bazkaria Loatzo musika eskolan, gela balionaitzean. Txartelak salgai daude, 20 eurotan, Villabonako Larrea, Kixubi eta Amasako okindegieta eta Amasako Iturri-Goxo jatetxean.

■ **Ondoren.** Dantzaldia musikaz alaituta.

S Soka motzean

«Betetasun handia ematen du mendi bat igotzerakoan»

EGOITZ BENOETXEA

Mendizalea

I. GARCIA

Aizkardi elkarteak kidea da Egoitz Benegoetxea (Amasa-Villabona, 1984).

Mendi bat?

Loatzo.

Mendizale bat?

Jean Christophe Lafaille.

Mendikate bat?

Pirinioak.

Zer da zuretzat mendi bat igotzea?

Berez zentzurik ez duen gauza bat, baina betetasun handia ematen duena.

Gaina lortzerakoan?

Gero eta zailagoa, orduan eta betetasun handiagoa.

Mendira joaterakoan ahaztu behar ez dena?

Kantimplora.

Negua ala uda?

Ekintzaren arabera, baina negua nahiago dut nik.

Zergatik hainbeste mendizale euskaldunen artean?

Afizio handia dago. Ez dakit, kutsatu egiten da. Txikiak badira ere, mendiak gertu ditugu.

Zein mendi gustatuko litzaizuke igotzea?

Amets bezala, Ama Dablam, 7.000 metro ingurukoa.



I. GARCIA



PILOTA PARTIDUAK
aspepelota.com

Martxoak 3 • Astelehena
16:30

Berasaluze IX - Apeztegia
Cabrerizo - Arruti
II III III III

CAPELLAN - PASCUAL
XALA - NALDA III
II III III III

Retegi II - Argote
Uriarte - Galarza VI

Tolosako Beotibar pilotalekuan

Ikasleen aurrean irakurtzeko gurasoen txanda da

Ikaztegieta » 'Gurasoak irakurle' ekimenean ariko dira 10-15 minutuko ipuinak kontatzen eta irakurzaletasuna bultzatuz.

NEREA URBIZU

Ikaztegietak ikastetxean datoren astean, asteartean, *Gurasoak irakurle* ekitaldia izango da. 15:40ean bost gurasok, ikasle, guraso, nahiz irakasleen aurrean 10-15 minutuko irakurketa bat egingo dute, nahi duten gaiari buruz, helburu irakurzaletasuna bultzatzea izanik. Bakoitza ikasgela batean izango da. Aurten lau hizkuntza izango dira: euskara, gaztelera, ingeleza eta ama errumaniar baten eskutik errumaniaraz.

Adin ezberdinak nahasirik izango dira entzuten eta 7 bat taldetan banatuta. Talde bakoitzean 12-14 bat lagun izango dira. Maria Garai liburategiko arduradunak gonbidapenak eta irakurleek eskatutako liburua prestatu ditu honetarako. «Gonbidapena», argitu du Inma Delgado ikastetxeko zuzendariak, «ikasle guztiei egin zaie, zein irakurketa-ipuina egongo diren, gutxi, gorabehera, esanez. Aurten gehienek errumaniarako irakurketan egon nahi zuten».

Nahi duten ipuina, nahi bezala
Oraingoan gurasoek irakurrikiko dute, haiek erabakitako ipuina, haien gustukoak, eta borondatez, «guztiz librea da irakurrikiko dutena». Ikasgela nahi badute ere zer-txobait egoki dezakete. «Aurten 5

gurasok eskaini dute haien burua irakurtzeko». Baina urtean zehar, irakasleek eta seigarren mailako ikasleek ere irakurtzen dute.

Helburua: irakurzaletasuna
Helburua honakoa da: «Irakurzaletasuna bultzatzea. Ikasleek ikusi behar dute guraso eta aiton-amonak ere irakurri egiten dutela». Hau da, eskolatik kanpo egiten den zerbaite ere badela irakurtzea. Lehenengo hiruilabetean irakasleek irakurri zuten. Datorren irakurketa berezia, berriz, 6. mailako esku-tik etorriko da, hirugarren hiruilabetean.

Ez da hau egiten duten lehenengo urtea, bost urte inguru dauzka ekitaldi berezi honek. 15:40a alderira hasiko dira, eta 16:00etarako bukatuta izango da.

Zizurkilen gaur, eta bihar Orendainen eta Alegian Independentzia Eguna

Politika » Dantza eta musika ez dira faltako herri hauetan ere. Asteberrian bost herritan ospatuko dute egun hau.

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan eskualdeko guztienez 5 herri Independentzia Eguna ospatuko dute, euskal kulturari lekua eginez.

Gaur bertan Zizurkilen DVD emanaldi bat izango da 11:00etan, Zizurkil Goian, hain zuzen. Bestela, beste lauak bihar izango dira. Alegian goizean diana izango da eta kalez kale ibiliko dira. Dantzen ondoren hamaiketakoak izango da: herritarrek borondatez prestatutako jakiak izango dira eta egun honetarako 5 euroko txartelak prestatu dituzte, nahi adina jan eta edateko.

Aitor Sarasola alkatearen hitzaldia, egunak berak dioen bezala, Independentzia aldarrikatzeko izango da. Arratsaldean herri kirolekin lotutako jokuak izango dira plazan.

Berto poteoa trikitixarekin eta herriko bertsoariekin herrian ibili ondoren, iluntzean zahagiardoa izango da: ezker abertzaleak ardoa eta sagardoa jarriko du. Beste guztiari herriarren kontu izango da: guztia plazan izango da.

Orendainen murala
Orendainen auzolan pixka bat egiteko aprobeztatuko dute biharko eguna. 10:00ak aldera bilduko dira honetarako. Bitartean murala margotuko dute.

11:45ean elkarretaratzea egingo dute plazan, *Guk Independentzia* leloarekin. Bazkaria elkarrean egingo dute eta ondoren eta bukatzeko, mus txapelketa izango da.

» EGITARRAUAK

ZIZURKIL

■ **11:00.** DVD emanaldia Zizurkil Goianen.

ALEGIA

- **09:30.** Diana herriko kaleetan zehar musikarekin.
- **11:00.** Dantzariak herriko plazan: ikurrinari ere dantzatuko zaio.
- **12:00.** Ekitaldia, hitzaldi batekin.
- **Ondoren.** Hamaiketakoak plazan.
- **16:30.** Ume jolasak.
- **19:00.** Berto poteoa, trikitixaz.

■ **21:30.** Zahagiardoa plazan. Sagardoa eta ardoa izango dira.

ORENDAIN

- **10:00.** Independentziaren Murala egingo dute. Bien bitartean, tontorreko milurteko harri ingurua txukuntzera joango dira.
- **11:45.** Elkarretaratzea plazan, *Guk independentzia* leloarekin.
- **12:30.** Ekitaldia.
- **14:00.** Bazkaria Eltxo Elkarrean.
- **Ondoren.** Mus Txapelketa.

Euskal Herria Astea bukatuta, burua Txinan

ALEGIA » Euskal Herriaren Astea bukatu dute Alegiko San Juan herri eskolan. Jolasak, ohiturak, kirolak eta kultura espreski lantzen aritu dira aste osoan zehar. Gurasoen (edo aiton-amonen) tortoloxak hartu eta aspaldiko joku hau berreskuratu dute. Berdina, txapekin egin dute. Aurten Ekuador Astea, Euskal Herriaren Astea eta azkenik, 3. hiruilabetean Txina landuko dute. «Ez dugu Txinako ikaslerik aurten, baina udan bertan Olinpiar Jokoak izango direnez, aukera ona iruditu zitzaigun lurralde honetaz gehiago jakiteko», Axun Esnaola irakasleak esan bezala. Ez dute erraz ahaztuko Alegiko ikasleek aste hau, Kultur Etxean ikusitakoak eta entzundakoak, eskolan jolastutakoak eta sentitutakoak kontuan izanik. N. URBIZU



Laburrak

Martxoak 8ko bazkarirako txartelak salgai daude

ALEGIA » Martxoaren 8, Emakumearen Nazioarteko Eguna izanik, Alegian Eizmendi jatetxean, bazkaria antolatuko dute, gaur zortziraiko, beraz. 14:00etan izango da eta bertara joateko txartelak dagoneko salgai daude, etzi arte. Txartel hauek jatetxean bertan eta Inaxio Begiristain kultur etxean eskura daitezke 29 euroren truke. Emakumeentzat izango da afari hau.

Gaur Bedaion emakumeen afaria izango da, Artubin

BEDAIO » Gaur Bedaioko Artubi elkartean afari bat antolatu du elkarrekin. Emakumeentzako gizonetzkoek prestatuko dute afaria. Aurtengoa bigarren urtea izango da hau egiten dutena, baina oraingoan, afaltzera joaten den emakume bakoitzak lore bana eraman beharko du, eta edozein itxura, bizi nahiz lehorra izan daiteke. Sorpresaren bat izan daiteke... Martxoak 8 izango dute gogoan.

'Grebana gauda' antzezlanaren datorren ostiralean

ALEGIA » Lakrikun taldearen esku-tik, Alegiko Kultur Etxean *Grebana gauda* antzezlanaren izango da ikusgai. 22:30ean izango da datorren ostiralean, eta dohainik. Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketan saritua izan zen 2004ean. Antzerki honetan hiru emakume garbitzaile dira protagonista eta grebara joatea erabakitzen dute memento batean, arrazoia argi izan gabe. 12 urte-tik gorakoentzat da aproposa.

Euskal Herriko errepide mapa

- Euskarazko toponimia
- Bide sare berriak
- Bidaldiak, kilometroko zehazturik
- Herrien zerrenda
- Euskal Herriko hiriburuaren gune turistikoaren plano eta kale izendegi osoak
- Mendi zerrenda

ESKALA 1:200.000
(1 cm=2 km)

Eguneratua!

Martxoaren **8, 9** eta **10**ean zure kioskoan

+ 5,95€

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**



Leidor aretoa jendez bete zen atzo, ezker abertzaleak eman zuen hitzaldian. ASIER IMAZ

Ildo politikoa aurkeztuz ezker abertzaleak Tolosan eman du lehen hitzaldia

Politika » Gipuzkoako lehen hitzaldian, ildo politikoa gain «Loiolako elkarrizketak» izan ziren protagonista atzo.

ASIER IMAZ

Ezker abertzaleak Euskal Herriari egiten dion proposamen politikoa aurkeztu zuen atzo Tolosako Leidor aretoan. Gai honen inguruan Gipuzkoan egin duten lehen hitzaldia izan zen atzokoa eta Leidorren 250 lagun bildu ziren.

Hitzaldian «Loiolako elkarrizketek» pisu handia izan zuten, ezker abertzalearen esanetan, «proposamen politikoa ongi ulertzeko eta negoziazio politikoan zer gertatu den jakiteko, informazioa edukitzea beharrezkoa da. Gizarte hau eraldatzeko oso garrantzitsua da ahalik eta jakintza gehien edukitzea».

«Gure helburua»

Hitzaldiaren sarreran, ezker abertzaleko kideek euren helburua

«hauteskundeetan baino Euskal Herrian» zehaztu zuten, horretarako, euren ikuspuntutik Tolosaldeko herritarrek egin beharreko lana azaldu zuten: «Gure helburua ez da hauteskunde batzuk irabaztea edo diputatu asko edukitzea. Gure helburua Euskal Herri eskaldun, sozialista eta independentea da. Horretarako ezinbestekoa da denok militanteak izatea, gure etsaiaren metodoak ongi ezagutzea eta gure proposamen demokratikoak herritar guztiei zabaltzea».

«Negozioazio prozesua»

Ezker abertzaleak Leidorren bildutako jendeari «negozioazio prozesuaz» hitz egin zien lehenik, ondoren gaur egungo egoeraren inguruan balorazio bat egiteko. «Espainiako Gobernu eta ETA akordio batera iritsi ziren, guretzat hori izan zen negoziazio prozesuaren hasiera».

ETA eta Espainiako Gobernuak «lortutako akordioak» bi arlo zituela aipatu zuten ezker abertzaleak; «arlotan politikoan, Espainiako

Gobernuak lau lurraldeetako herritarren nahia errespetatzea onartu zuen, muga bakar bezala herritarren nahia jarritz. Bigarren puntuan, zehaztu gabeko akordio hori, Euskal Herriaren helgoaldea agente politikoek zehaztu behar zutela onartu zuten bi aldeek, oinarri politikoa eta juridikoa emateko».

«Prozesuaren distorsioa»

Leidorren bildutako jendearen aurrean, ezker abertzaleko kideek, euren ikuspuntutik «maiatza eta iraila bitartean» zer gertatu zen azaldu zuten. «Prozesua desitxuratu zen baldintzatzen hasi ziren: ETArek nahia egiaztatze kontu hura asmatu zuten, mahaiean ez esertzeko eta demora irabazteko. Ondoren Arnaldo Otegi bera ere atxilotu zuten, nahiz eta jakin bitartekaria bere izango zela eta ilegalizazioak ere kontutatu berean eman ziren. Bestalde, Zapaterok emaniko hitzaldian euskal herritarren nahia onartuko zuela aitua zuten, baina konstituzioaren baitan. Honen aurrean, ekintza ez-

berdinak egin ziren, horien artean negoziazio taldea aurkeztu zuen Batasunak. Azkenean mahaiaren inguruan esertzea lortu genituen eta hori Loiolan gertatu zen azarotan».

Ezker abertzalearen esanetan, «Loiolan Batasuna, PNV-EAJ eta PSE-EE elkartu ziren, nahiz eta azken hauek alderdi osoaren izenean hitz egiten aritu ziren. Egun batzuen ostean, lehen akordio batera iritsi ziren».

«Loiolako dokumentua»

Ezker abertzaleak, «lehen zirriborroa» osatzen omen zuten lau puntu aipatu zituen. «Lehen puntuan, Euskal Herria 7 probintzia dituen subjeto bezala definitzen da. Bigarren puntuan, hegoaldeko euskal gizarteak askatasunean eta demokratikoki bere etorkizunaren inguruan erabakitakoa, estatuko instituzioetatik onartua izango zela jartzen zuten. Hirugarren puntuan, Euskal Herriaren eskubideei zegokiena zen, horien artean euskara hegoaldeko lau lurraldeetan ofiziala izan behar zuela jartzen zuten. Laugarren puntuak Euskal Autonomi Elkartearen eta Nafarroaren arteko harremanak bideratuko litzkeen instituzio bateratuz hitz egiten zuten».

«Prozesuaren haustura»

Leidorren aipatu zenez, ezker abertzaleak puntu hauen inguruan hausnarketa egitean, zehaztasunak eskatu omen zituen, «bermeak». Euren esanetan, «honen aurrean PSOE eta PNV-EAJk erantzun bateratua eman zuten, ezezko borobila, errespasioarekin mehatxuak eginaz gainera».

Ezker abertzalearen esanetan saiakera berri bat «atzerrian» egin omen zen, ikuskatzaile eta guzti, «komunikabide askotan atera den bezala. Bi karriletan baina aldi berean hitz egin zen, ETA eta PSOE alde batetik eta Batasuna eta PSOE bestetik. ETAK armak uzteko bidea jarri zuen mahai gainean. Mahai politikoan berriz, Batasunak hiru proposamen egin zituen: Loiolako 4ko autonomiarena, herritarrei zuzenean etorkizunaren inguruan galdetzearena eta ikuskatzailek egin zuten proposamena. PSOEren erantzuna mahaitik altxatzea izan zen. Haustura beraz mahai politikoan eman zen, ETAK bere aldetik dena jarri baitzuten mahai gainean, desarmarako urratsak...».

«Ondorioak»

Ezker abertzaleak gizartearen «aldaketa nahia» ikusten duela aipatu zuten, «proposamen zehatz baka- rra euren zela aldarrikatuz negozi- azio prozesuan ikusi den bezala».

Euren esanetan «arriskuak» ere aurkitzen dira, arlo horretan, «EAJ eta NAbai-ren jarduna» aipatu zituzten, «EAJ eta PSOEren artean akordio garrantzitsuak eron dira, aurrekontuetan eta AH- Taren inguruan bezala. NAbai ber- ritz EA.Jren kopia bat bilakatu da».

Ezohiko bilkura egingo dute etzi 18:00etan Ibarako udaletxean

Politika » Ion Ander Bastarrikak zinegotzi kargua hartuko du Mila Garcia de Iturrosperen hutsunea betez.

A. IMAZ

Udalbatza osoaren ezohiko bilkura egingo dute etzi 18:00etan Ibarako udaletxean. Ezohiko bilkura lau puntu aztertu eta bozkatu- ko dituzte.

Gai-Zerrenda

Lehen puntuan Eusko Alkatasu- neren zinegotzi kargua hartuko du Ion Ander Bastarrikak, Mila Gar- zia de Iturrospekk utzitako hutsu- nea betez.

Bigarren puntuan «batzorde in- formatibo iraunkorrak aldatzea eta eratzia» aztertuko dute.

Hirugarren puntuan, Emaku- mearen Nazioarteko Egunari buruzko erakunde arteko Adieraz- penak irakurriko dute. Azken pun- tuan, «organizazio politikoan legez kanporatzeari buruzko mo- zioa» bozkatuko dute.

Ezker abertzalearen deia

Ibarako ezker abertzaleak bat egin du EAEren deialdiarekin eta herritarrek «ilegalizazioaren aurka- ko mozioa» babestera deitu dituzte, «ondorioz, oso garrantzi- tsua iruditzen zaigu ibartarrak etziko bilkura ager daitezen».

Mendekotasuna duten adinekoak zaintzeko ikastaroa Berastegin

A. IMAZ

Gaztainondo Jubilatuen Elkarte- ak martxoaren 4tik aurrera hain- bat prestakuntza ikastaro eskaini- ko ditu Gipuzkoako Foru Aldundi- ko Gizarte Politikako Departamentuak antolatuta Sen- dian programaren bidez.

Ikastaro horien helburua adine- ko mendeko pertsonak zaintzen dituztenei laguntza eta prestakun- tza eskaintzeaz gain, «egiten duten lan hori modu egokian egin dezaten». Zure nagusiak maite dituzenez hobeto zaintzen ikasi lelo- pean, martxoaren 3, 4, 5, 6 eta 7an emango dira ikastaroak 15:00eta- tik 17:00etara. Programa horretan parte hartu nahi dutenek informazio gehiago jaso eta eskaera orria bete dezakete udaleko gizarte zer- bitzuetan.

Iragarki laburrak

SALGAI

- **Trikitixa.** Egoera onean dagoen trikitixa saltzen da. 669 67 36 49.
- **Etxea.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. 665 70 86 35.
- **Txakurra.** Yorkshire (toy) arraza- ko 2 txakur saltzen dira. Pedigria-

rekin. Arra: 900 gramo. Emea: kilo bat eta 250 gramo. Deitu: 618 95 32 12.

BESTELAKOAK

- **Txakurkumea.** Border Collie arrazako txakurkume emea opari- tzen da. 658 70 59 12 (Xabo).

@ Inkestak. Sartu gure web orrian eta eman zure iritzia inkestan atalean. Bertan gai ezber- dinak aurkituko dituzu, besteak beste honako hau: *TAO aparkatze- ko sistemak Tolosan urte batzuk ba- daramatza. Sistema honen helburua kontuan izanik (jendeak kotxea gu- txiago hartzea, besteen artean) so- matu al duzu eragina? Zure bozka ematean ehunekoetan ikusiko di- tuzte emaitzak.*

www.tolosaldekohitza.info



Miel Mari Elozegi eta beste zenbait bertsolari joan den ostegunean zineman egin zuten saioan. N. GARZIA

Nafarroako Bertsolari Txapelketako hirugarren finalerdia, gaur, Beran

Bertsolaritza » Elozegi parte hartuko du beste 5 bertsolariarekin batera eta finalerako zein bertsolari sailkatuko diren jakinen da.

NAIARA GARZIA

Aurreko 2 asteburuotan jokatu-ko lehen 2 finalaurrekoen ondoren, asteburu honetan Nafarroako

Bertsolari Txapelketaren bigarren finalerdia izanen da. Horren ondoren, martxoaren 15ean Elizondoko jokatu den finalean zein 8 bertsolari ariko diren jakinen da.

Saioa gaur izanen da Berako Kultur Etxean, 18:00etatik aurrera, eta Miel Mari Elozegi Luze bertan parte hartuko du. Orotara 6 bertsolari ariko dira. Horietatik batek lehenengo aldiz parte hartuko du txapelketa honetan: Ander

Fuentesek, hain zuzen ere. Ituren-ko bertsolariak bere herrian egin zen kanporaketan lortu zuen finalaurrekoetarako sailkatzea.

Beran ariko diren gainerako bertsolariak arituagoak dira: Jon Barberena, Miel Mari Elozegi Luze, Eneko Lazkoz, Jon Elizetxe eta Juan Mari Lopez.

Finalaurreko honetan ariko diren 6 bertsolari hauen artean onenak zuzenean lortuko du Elizon-

doko finalerako txartela. Orain arte, aurreko finalaurrekoetako 2 irabazleek eskuratu dute txartela: Txantrean Erika Lagomak irabazi zuen eta Lekunberrin, Xabier Legarretak.

Horrez gain, Berako finalaurrekoaren ostean jakinen da zein diren finalean egonen diren beste 5 bertsolariak. Finalaurrekoetako irabazleez gain, 5 puntuaziorik onenak lortu dituzten bertsolariak sailkatuko dira Elizondoko saiorako.

Miel Mari Elozegi, Beran

Miel Mari Elozegi azaldu duenez, «gustura eta pozik» dago finalerdian egokitu zaizkion bertsolariekin. Joan den ostegunean, saio honetarako prestatzeko, bertso-saioa antolatu zuten zineman, ohol-tza gainean eta jendaurrean bere burua ikusteko. Jende gutxi azaldu zen arren, bertsolariak hagitx lasai egin zuten saioa.

Elozegi joan den urtean Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalera iritsi zen, eta azkenaurreko gelditu zen Bittor Elizagoien aurkera. Txapela Xabier Silveirak irabazi zuen.

» PUNUAZIOA

■ **Lehenengo finalaurrekoa.** Erika Lagoma (343 puntu), Julen Zelaieta (331), Xabier Terreros (320,5), Bittor Elizagoien (301,5), Oier Lakuntza (298,5), Diego Riaño (295).

■ **Bigarren finalaurrekoa.** Xabier Legarreta (327 puntu), Julio Soto (318,5), Iñigo Olaetxea (318,5), Oskar Estanga (302,5), Etxabe (294,5), Aritz Saraguetza (290).

■ **Bihar parte hartuko dutenak.** Miel Mari Elozegi Luze leitzarra, Jon Barberena, Eneko Lazkoz, Jon Elizetxe, Juan Mari Lopez eta Ander Fuentes (lehenengo aldiz hartuko du parte txapelketan).

Aurrerak Ilunberriren aurka jokatu du

Futbola » Igandean jokatu dute norgehiagoka, Ilunberrin, joan den asteburuan 2-0 galdutik ondoren.

N. GARZIA

Joan den asteburuan jokatu dute norgehiagokan Aurrerak ez zuen 3 puntuak eskuratzetik izan, San Jorge taldearen aurka galdutik egin baitzuen. Azkeneko norgehiagokan honen ondoren, 10. postuan doaz leitzarrak, 31 punturekin. San Jorge, 2-0 irabazi zuen arren, eta 3 puntuak lortu zituen arren, 11. postuan doa.

«Partida nahiko parekatua izan zen», dio Unai Olano Aurrerako jokalariek. Atsedendira 0-0 iritsi ziren 2 taldeak, baina 70. minutu-



Ilunberriren aurka lehenengo itzulian jokatu dute norgehiagoka. A. OTEZABAL

tik aurrera partida erabat aldatu zen. «70. minutuan Imanol Urkiola kanpora bota zuten, eta hortik aurrera taldeak behera egin zuen, eta aurkariek 2 gol sartu zizkiguten.

Igandean, 16:30ean leitzarrek

Ilunberri taldearen aurka jokatu dute. Talde hau azkenaurreko doa sailkapen orokorrean, hau da, 15. postuan (Iruña taldea da azkena). «Nik uste gu hobeak gara», dio Unai Olanok, «baina Ilunberri-ko futbol zelaia zaila da eta jende

asko joaten da beti haiek animatzen, eta horrek ere zerikusia izaten du partidaren emaitzean».

Sailkapena

Oraindik 7 jardunaldi falta dira bigarren itzulian amaitzeko, eta Lagunak taldea lehenengo doa sailkapenean, 51 punturekin, eta bigarren taldeari (San Cristobal) 8 puntu ateratzen dizkio. Lagun Artea hirugarren doa, 41 punturekin, Cantolagua laugarren, 40 punturekin, Gares bosgarren 37rekin, Gazte Berriak eta Pamplonak puntu kopuru bera izan arren (34), lehenengo seigarren doa, eta bestea, zazpigarren. 31 punturekin 4 talde daude eta hauetatik Amigo zortzigarren doa, Amaya bederatzigarren, Aurrera hamargarren eta San Jorge hamaikagarren. Beste 5 talde dituzte atzetik.

Zortzi partida jokatu dituzte gaur herriko pilotariek festa giroan

Pilota » Iera Agirrek Diario Vasco Sarian jokatu du bihar, Oberenako Maite Ruizekin, Hernanin.

N. GARZIA

Gaur 10:00etatik aurrera eta goiz osoan zehar 8 partida jokatu dituzte herriko pilotariek. Nafar Jokoen finalaurrekoak hurrengo asteburuan jokatu dituzte eta asteburu hau libre zutenez, herrian bertan zenbait partida antolatzea erabaki dute.

Beñat Altzelai, Aimar Gil, Ander Alduntzin, Danel Zabala, Xabier Astiz, Joanes Illarregi, Josu Sukuntza, Unai Zabala, Julen Goikoetxea, Lenitz Galartza, Markel Barriola, Ander Eskudero eta beste hainbat pilotari ariko dira. «Festa giroan antolatu dugu, eta bertan Nafar Jokoen parte hartu ez duten pilotariek ere jokatu dute».

Bestalde, igandean Iera Agirrek Maite Ruizekin jokatu du, Hernanin, Diario Vasco Sarian.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Allegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 675390 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurrarendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Anoeta.** Izeba Pilarren Ilobak taldeak azken kontzertua eskainiko du 23:00etatik aurrera Anoetako Gaztetxean.
■ **Tolosa.** Kokein eta Le Fou taldeak ariko dira Bonberenean 22:30ean.

Deialdiak

■ **Leitza.** Osasunako Indar Gorri peñaren 20. urteurrena dela eta, jaialdia Atekabeltz Gaztetxean: 18:30ean ongi-etorria eta ondoren triki-poteoa egingen dute, 22:00etan kontzertuak izanen dira.
■ **Anoeta.** Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko afari bat antolatuko du Buztina Tabernan. Izen-ematea, udalgetxean edo Abraham Olano kiroldegian (15 euro).

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, *Lio barbarazoso*, 17:00etan; *Irina Palm* 19:30ean; eta *El amor en los tiempos de colera* 22:30ean.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Txetxo Gaztañagaren artista tolosarraren marrazki eta margolanak izango dira ikusgai Aranburu Jauregian.
■ **Tolosa.** Tomas Hernandezen Mendizabal artista donostiarraren erakusketak Aranburu Jauregian.
■ **Alegia.** Jose Luis Lopez tolosarraren margolanak daude Jubilatu tabernan, asteartetik igandera bitarte, hilabete osoan zehar.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.

Aipatzeko moduko lana



Lau aipamen bereziak jaso zituzten guztiak, Atxulondo kultur etxearen oholtza gainean. I. GARCIA

Zizurkil » Manuel Larremendi Bazkunak eta 'Aiurri'k Beterri Aipamen Bereziak banatu zituzten Atxulondo kultur etxean.

ERREDAKZIOA

Aurten bigarren aldiz, Manuel Larremendi Bazkunak eta Aiurri aldizkariak Beterri Aipamen Bereziak banatu zituzten. Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean izan zen ekitaldia eta bertan Ohorezko Aipamena Joxe Antonio Jauregiri

eman zioten. Errebotea eta joko garbia mantetzen eta hurrengobelaunaldiei uzteko 35 urtetan zehar egindako lana goraiatu zuten aipamen-emaileek. Jauregik, bere aldetik, Behar-Zana elkartearen go-raipatu zuen eta erreboterik gabe Villabona ezingo zuela irudikatu azaldu zuen.

Beste hiru aipamen eman ziren. Kirolari loturikoa Asteasuko Aitzondo Txirringulari Elkarteak jaso zuen. Elkarte horrek antolatzen dituen bi txirringularitza proba garrantzitsuak aipatu zituzten Larremendi Bazkunakoei aipa-

mena ematerakoan. Alde batetik, bihar bertan egingo den afizionatu mailako Aitzondo Klasikoa. Bestetik, eskualdean antolatzen den nazioarteko kirol ekitaldi bakarra, hau da, Asteasuko Ziklokrosa. Elkarteak Joxe Ramon Aiertzak Asteasuko herriari eskaini zion jasotako aipamena.

Kultur arloko aipamen berezia Andoingo Aita Larremendi Ikastolari eta bertako guraso elkarteari eman zioten. Herri horretan, aurretik egiten ez zen Oletzero eta Mari Domingiren etorrera antolatzeari izan da aipamena emateko

arrazoia. Aipamena jaso zuten bi gurasoek antolakuntzan parte hartutako guztiei eskaini zieten eta egitasmoarekin jarraitzeko nahia agertu zuten.

Gizatasunaren aipamen berezia Adunako herriari eman zioten, sahararri erakutsitako elkartasunarengatik. Adunatar ugari igo ziren oholtza gainera, ekimen horretan parte hartzen dutenak asko direla erakutsiz. Sahararregandik asko jasotzen zutela adierazi zuten eta Udalak, enpresak, herriko taldeak eta oro har herritar guztiak emandako laguntza eskertu zuten.

Foto
Depilazioa

Azkenik bukatu egin da ilearen arazoa



Hanka osoak

250€

Martxoaren 1-etik 15-era

Shuyana Edergintza

Eskolepioetako Lorategiak, nº 13, 1º A
20.400-Tolosa. Tel. 943 67 54 89

